

## EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUKO BATZORDE IRAUNKORRAK *HERENEGUN!* UNITATE DIDAKTIKOARI BURUZ EGINIKO TXOSTENA

### **I.- Sarrera:**

Gogora-Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzako Idazkaritza Nagusiak eta Hezkuntza Sailak esperientzia pilotu bat abiarazi dute elkarrekin, helburutzat harturik Memoria Hurbila (1960-2018) deitzen den hori dagokion garaian sartzea DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako Historia ikasgaiari.

Horregatik eskatu diete hezkuntza-komunitateko sektore desberdinei eta Euskadiko Eskola Kontseiluari ekarpenak egin ditzatela horretarako garatu den material didaktikoari buruz, eta azaroaren 16ra arteko epea eman dute ekarpen horiek jasotzeko.

Langintza horri ekiteko, Kontseilu honek lan-saio bat programatu zuen kide guztientzat urriaren 18an. Bertara bildu ziren Jonan Fernández eta Aintzane Ezenarro, zeintzuek materialen zentzua eta garapen-prozesua azaldu zituzten. Ondoren, solasaldi bat egin zen zalantzak eta lehen inpresioak adierazteko.

Bilera horretara 12 kontseilari azaldu ziren. Gero, jorratutako materiala Kontseiluko kide guztiei bidali zitzairen, eta azaroaren 5era arteko epea eman zitzairen ekarpenak egiteko.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek 2018ko azaroaren 15eko saioan txosten hau onartu du gehiengoz:

### **II. Edukia:**

*Herenegun!* unitate didaktikoak bere baitan biltzen ditu bost dokumental laburtuko serie bat -- dinamizazio-tresna nagusia-- eta lau koaderno:

- 1. koadernoak irakasleentzako oinarrizko testua da, eta unitatearen testuingurua ematen du ikuspuntu historiografikotik.
- 2. eta 3. koadernoetan jasota daude Historia ikasgaiarako lan-planak DBHko 4. mailarako eta Batxilergoko 2. mailarako.
- 4. koadernoan dokumentazio osagarria jasotzen da: testuak eta metodologia mota desberdinak.

### **III. Balorazioa eta gomendioak:**

Hasteko, eskerrak materiala osatzeko egin den ahaleginagatik eta helburu hau lantzeko borondateagatik, eta lan horretan aritutako langile guztiei.

Kontseiluak positiboki baloratzen du ekimen hori, beste aukera bat delako ikasleek Euskadiren historia hurbila ezagutu dezaten eta, horrela, pentsamendu kritikoa gara dezaten, uler dezaten modu desberdinak daudela errealitate bera interpretatzeko, eta ohar daitezzen beharrezkoa dela autonomiaz pentsatzen ikastea gauza izateko beste ikuspegi batzuk onartzen eta errespetatzen dakien pertsona bat izatera iristeko eta indarkeriaren erabilera deslegitimatzen. Gaitasun horiek denak barneratuz egingo dugulako aurrera gizarte heldu eta demokratikoago baterantz, eszenatoki bakezale berriak eraikiko dituen bizikidetzaren bitartez.

Guretzat bizikidetzaren positiboa dira pertsona baten duintasunerako funtsezkoak diren harreman pertsonalak eta taldekoak, eta pertsona guztien eskubide eta betebeharrak, beti ere Giza Eskubideak errespetatzen dituen eta indarkeriak tokirik ez duen testuinguru batean.

Material honek lantzen dituen gertakariak ez dira oso aspaldikoak, eta horregatik, nahiz eta materialaren hartzailerak diren ikasleek ez dituzten lehen pertsonan bizi izan, euren inguruko pertsona nagusiagoek bai. Horrek esan nahi du gertakari horien gaineko bizipen eta oroitzapenak nahitaz direla oso desberdinak, batzuetan elkarren kontrakoak ere.

Ikasleei ez zaie Historia irakasten kontakizun komun batera iritsi daitezzen edo gertatutako gauzak modu bakar batean uler ditzaten, baizik eta tresnak izan ditzaten pentsamendu kritikoa garatzeko eta iritzi propio bat osatzeko historia horri buruz. Eta baita ere atera ditzaten orainean eta etorkizunean aplikatzeko moduko ondorio etiko batzuk, aurrera egiteko gizarte hobea baterantz, gizarte horren oinarrian egongo direlarik gure autonomia erkidegoko curriculumaren helburuak: pentsatzen irakatsi behar da, ez zer pentsatu behar den.

Ikastetxeek eta ikasleek hain ongi baloratu zuten *Adi-Adian* programa inplementatu ondoren, orain perspektiba historikoa lantzea baliagarri izan liteke mota guztietako indarkeriak deslegitimatzen.

Positiboa da proposamen hori irekia eta malgua izatea, eta irakasleek aukera izatea bestelako input eta materialak gehitzeko.

Halere, inplementazioa eraginkorra izan dadin, Euskadiko Eskola Kontseiluak gomendio hauek egiten ditu:

1. Ongi bereizi, batetik, gertakari objektiboak eta datuak, eta, bestetik, gertakari horien interpretazioak edo oroitzapenak, oso desberdinak izan daitezkeenak kontalariaren arabera.
2. Materiala osatu bibliografiarekin, artikuluekin, bideoekin eta webgrafiarekin, irakasleek aukera izan dezaten gaia sakonago lantzeko eta material osagarri batzuk aukeratzeko.

3. Aztertu nolako aukerak dauden unitate hau *Adi-Adian* programarekin uztartzeko DBHko 4. mailan eta, hartara, dimentsio etiko eta emozionalak lantzeko. Horrela, ikuspegi transbertsalagoa lortuko da eta ikasleek hobeto ulertuko dute “memoria soziala” katalizatzaile bat dela gure historia eraikitzeko.
4. Eman aukera unitatearen ardatz bakarra ez dadin izan bideo bat, baizik eta baita ere testua, eta eskaini ikusizko dokumentuen sorta anitz eta zabalago bat, zeinaren barruan sartuko diren bost dokumentalak, idatzizko testuak eta ikasleen euren ikerketa.
5. Aztertu zer aukera dagoen unitate hau Batxilergoko 1. mailan sartzeko, zeren curriculumaren eta, batez ere, selektibitatearen presioa oztopo handia izan baitaiteke 2. mailan gaia lasai lantzeko.
6. Ikuspuntu pedagogikotik, DBHko 4. mailako ikasleentzat proposatutako jarduerak zehatzagoak, dinamikoagoak eta maila horretara egokituak izan behar lukete, ikasgelan errespetuzko elkarrizketa aberatsa ahalbidetzeko ikasleek lehenagotik dauzkaten ezagutzetatik eta kontakizun hurbiletatik (familia, ingurukoak) abiatuta. Era berean, gaia landuko duen irakasleak berak erabaki beharko luke zenbat denbora eskainiko dion unitate bakoitzari.
7. Irakaslea garrantzitsua da ikasleen artean gogoeta kritikoa sustatzeko eta gogoeta horiek adierazten laguntzeko, espazio seguruak sortuz horretarako. Horregatik proposatzen dugu prestakuntza labur bat ematea gaia landuko duten irakasleei, kontuan izanik material delikatua izan daitekeela. Tailer monografiko bat egingo litzateke, eta bertan bereziki azpimarratuko litzateke ikasleen ekarpen guztiak emoziotik eta errespetuz bideratu behar direla eta modu aktiboan entzunez, inolako balio-judiziorik egin gabe. Ikasgelan elkarreragin eraginkorrak sustatu ditzaketen galdera katalizatzaileak. Landu sor daitezkeen zalantzak eta bestelako galderak.
8. Proposatzen dugu 1. koadernoko adjektiboak berrikustea balio-judizioak saihesteko.
9. Nola ikastetxeen egoerak eta irakasleen sentsibilitateak oso desberdinak diren, proposatzen dugu gidaritza-lanak egitea bai *Adi-Adian* programan parte hartu duten ikastetxeetan, bai eta ausaz aukeratutako beste hainbeste ikastetxetan (hauek kontrol-talde lana beteko lukete).
10. Jokatu diskrezioz, patxadaz eta zuhur, kontuan harturik material honek eztabaida partidistak sortzen dituela hedabideetan, sare sozialetan eta eztabaidetako partaideen artean, eta giro hori gainditu arte zaila izango dela gaia ikasgeletan lantzea. Horregatik, lan hori zuhurki eta erritmo pausatuan egin behar da.